



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Jaun/andere agurgarriak:

*Ibilgailuen azterketa teknika arautzen duen urriaren 14ko 2042/1994 Erret Dekretuak (ekainaren 9ko 711/2006 Erret Dekretuak aldatu du dekretu hori) agintzen duenez, 2007ko martxoaren 21etik aurrera nahitaezkoa da **ziklomotor eta kuadriziklo arinei aldizkako azterketa teknika** egitea. Bi gurgileko ziklomotorrei dagokienez, berriz, autonomia-erkidegoek betekizun hori 3 urtez atzeratzeko aukera zutela adierazten zuen dekretuak.*

Aurrekoa betez, 2007ko martxoaren 7an Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko otsailaren 13ko Agindua argitaratu zen EHAAn, bi gurgileko ziklomotorren azterketa teknikoaren derrigortasuna indarrean sartzen zela zehaztuz. Agindu horretan ezartzen zenez, ibilgailu horiek 2007ko apirilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra arteko epea zuten aldizkako azterketa teknika egiteko.

Bi gurgileko ziklomotorren joan-etorriak ziklomotor horiek kokatuta dauden udalerrira mugatu ohi dira, eta gainera ibilgailu horiek bide azkarretatik zirkulatzeko mugak dituzte batzuetan, abiadura mugatua dutelako. Hori guztia kontuan hartuta, unitate mugikorrak gaitu beharra erabaki da, estazio finkoetatik urrun dauden herrietara iristeko.

*Udalerrri hau **IAT estazio mugikor** bat jartzeko hautatutako bat izanik, azterketa horiek **2012ko maiatzaren 23an** egingo dira **09:15etik 14:00etara**, Mallabirako bidean dagoen **IZARRA** eraikinean,*

*Horretarako **txanda aldez aurretik hartu beharko da apirilaren 23tik maiatzaren 22ra** Ermuko Udaltzaingori **943 17 90 10 telefono zenbakira** deituz. Horretarako ordutegia **08:00etatik 15:00etara izango da**, bertan emango dizkizute argibide guztiak.*

Aldez aurretik eskerrak emanaz

En Ermua, a 17 de abril de 2012
Ermuan, 2012ko apirilaren 17an
EL ALCALDE / ALKATEA

Fdo./Sin.: Carlos Totorika Izagirre

Estimado vecino/a:

La inspección técnica de vehículos regulada por el real Decreto 2042/1994, de 14 de octubre, y modificado por el Real Decreto 711/2006, de 9 de junio, introdujo la obligatoriedad de realizar la **inspección técnica periódica a los ciclomotores y cuadriciclos ligeros** a partir del 21 de marzo de 2007. Asimismo se indicaba que, para el caso de los ciclomotores de dos ruedas, las comunidades autónomas podían diferir dicha obligatoriedad hasta tres años.

De acuerdo con lo anterior, con fecha 7 de marzo de 2007 se publicó en el BOPV la Orden de 13 de febrero de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y turismo, por la que se determina la entrada en vigor de la obligatoriedad de la inspección técnica en los ciclomotores de dos ruedas, en la que se señala que dichos vehículos podrán comenzar a pasar la inspección técnica periódica a partir del día 1 de abril de 2007, fijando como fecha tope para haber pasado dicha inspección técnica el día 31 de diciembre de 2007.

Teniendo en cuenta que habitualmente los desplazamientos de los ciclomotores se limitan al propio municipio en el que radican y que en ocasiones se ven afectados por restricciones a la circulación por velocidad, se ha creído conveniente habilitar unidades móviles que se desplacen por distintas localidades alejadas de estaciones fijas.

Dado que este Ayuntamiento figura entre los seleccionados para ser visitado por una **estación ITV móvil**, les informamos que dichas inspecciones se llevarán a cabo **el día 23 de mayo de 2012, en horario de 09:15 horas a 14:00 horas en el Edificio IZARRA**, sito en la carretera de Mallabia.

Para ello deberán solicitar **cita previa desde el 23 de abril al 22 de mayo en el teléfono de la Policía Municipal, 943 17 90 10**, en horario **de 08:00 horas a 15:00 horas**, donde les aclararán cualquier tipo de duda al respecto.

Agradeciendo de antemano su colaboración, reciba un cordial saludo